

# GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

48. zenbakia

94ko maiatzak 27



*Goierri Eskola, barrutik*




*i*txura baino  
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA



**Zeureganatu**

**batzuk**

**Ray-Ban®**

Betaurrekoekin  
batera kamixeta  
eder bat  
oparituko  
dizugu

**6.950 PTA.N**

Bizitzari begiratzeko duten eragatik. Originalak. Genuinoak.  
Ez etsi. Izugarri gustatzen zaizkizu. Zeuregana itzazu.

**J. Larrañaga**  
OPTIKA

**MULTIOPTICAS**

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

**MULTIOPTICAS**

Beti zuri begira



## GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

48. zenbakia. 94.eko maiatzak 27. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.200 harpidedun.

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"  
Kultur Elkartea.

**Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).**  
**Tfna: 889612. Faxa: 161463.**

**124 posta kutxa, Ordizia.**

**Erredakzioa:** Jon Arano, Mikel Albisu.

**Publizitatea:** Josune Agirre, Argider Mujika.

**Erredakzio Batzordea:** Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Ana Irastorza, Aitor Calvillo, Xabier Glez, Ezama, Rufino Iraola, Joseba Telleria, Aloña Galarraga, Iñaki Amundarain, Pilare Mujika, Daniel Gonzalez, Iñaki Arin eta Alaitz Sarasola

**Azala eta zenbait argazki:** Dioni  
**Fotokonposaketa eta maketazioa:**



**GOIERRITARRA.** Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

**ISSN:** 1132-0907

**Lege Gordailua:** SS-926/89

**Frankeo kontzertatua:** 37/76

**GOIERRITARRAK** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



### 12. Erreportaia *Goierrri Lanbide Eskola, gorantz azken urteotan*

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut  
**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA..... TLF. ....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

## NON ZER

### 4. eskutitzak

**5. agenda:** *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Legorreta, Lazkao eta Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

**8. iritzia txandaka:** *Etorkizunerako aurrezteko planak*

**9. besteez esana, inkesta:** *Azterketetan egiten duzu "txuleta"rik?*

**10. Goierriko berri:** *Aizkorri eta ingurua babestu*

**14. hemen eta orain:** *"Hezi Kolektiboa", lana bilatzen laguntzeko*

**15. herriz herri:** *Segura, Idiazabal, Ormaiztegi, Ordizia, Ezkio-Itsaso, Ataun, Lazkao, Beasain, Zaldibia eta Legorreta*

**22. kirola:** *Aitzkorri K. E., futbol giroan gazteen alde*

**23. bertsolari goierritarrak:** *Elorza ormaiztegiarra*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jasotzen du

**GOIERRITARRAK**  
**GOIERRIKO**  
**UDALEN**  
**LAGUNTZA DU**



# Eskutitzak

## Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azal dutako edozein gairi buruz edota intergarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.

## Bidegorriak

Hirigintzakook ari zarete, ari zarete bideak berritzen, hobetzen, berriak egiten... baina ez al diguzue inoiz bide horien metro pare bat, bat eskuinetik eta ezkerretik bestea, txirrinduz ibiltzen garenok eskaini behar? Adibide soil bat jartzearen Lazkao, Beasain eta Ordizia, hiru herrien arteko komunikaziorik arinena, sanoena, ekologikoa txirrinduz lortzen da. Txirrindua hartu eta aide batean joan zaitezke Beasaina, aparkatzeko leku gehiegirik behar izan gabe molda zaitezke eta gainera hankak luzatuko dituzu, osasunaren mesedetan.

Egun gauzak dauden bezala, ordea, osasun on hori nerbioen kalteak zapuztuko du. Izan ere lau gurpiletako ibilgailuentzat prestatua dago guztia eta indarraren arrazoia medio txirrindulariok baztertzea beste erremediorik ez dugu. Zeharo izakera, behar eta funtzionamendu desberdinekoak garen ibilgailuak, auto-kamioiak eta txirrindua, ezin gaitezke leku berean eta lege berekin ondo konpondu; inkompatibleak gara. Hori dela eta bi aldeetako kexak arrazoizkoak dira: alde batetik txirrindulariok auto-gidariei zuzenduz zera esaten dugu: "ez gaituzte errespetatzen, ezta ikusi ere, eta zapaldu egiten gaituzte!" Bestetik berriz, autogidariei txirrindulariok buruz: "taldean igoal joaten dira eta guretzat lekurik ez dute uzten!"...

Beno ba, bi aldeek izan dezaketenez arrazoia, errepideak txukundu, berriak eta berriak eraikitzen hasten zarete, zergatik ez dituzue bi aldameen txirrinduentzako bideak, bidegorriak egiten? Orduantxe izango genituzke bakoitzak bere espazio eta bere lege-arauak.

Bestalde, ziztu bizian daramagun bizitzaren erritmo honi frenua jarri eta autoak geroz eta ziur eta sendagoak bai, baina mantsoagoak egitearen aldeko apustua egingo nuke nik: 200 Km/orduko har dezakeen autorik ez egin,

100 Km/orduko hartzearekin ere nahikoa dugu. Bazterretara garaiz iristeko goizxeago irten eta bidean kontu-kontari, bazterrak ikusiz eta gozatuz bizi ahal izango gainateke ("Iraultzak" onak dira, baina ez bizitza "reboluzionatua"...)

Ametsak amets, segi pedalei eragiten Patxi, Arantxa, Jaione, Miel, Alejandro, Joxepa, Mate, Hilari... eta ea geroz eta gehiago garen!

Pedalarik

## A ze flaxa!



ORDIZIAKO JUBILATUEN ETA PENSIONISTEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE JUBILADOS Y PENSIONISTAS DE ORDIZIA

Paseo de los Fueros, 50.  
Teléfono: 88 04 88  
20040 ORDIZIA (Guipúzcoa)

9 de Marzo 1.994

Señores:

Esta Junta Directiva en su nombre y de todos los jubilados y pensionistas decíamos expresarles nuestro agradecimiento por su valiosa colaboración.

También nos alegra su amable escrito en respuesta, lamentando no poder contestarles en nuestro querido idioma.

Con este motivo, aprovechamos la oportunidad para saludarles muy atentamente.



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO  
GARAJEA**

Senpere Industrialdea  
☎ 882442-888901  
Faxa: 888901  
LAZKAO



**ARGAZKI DENDA**

Argazkien errebelatua ordu betean  
Tfnoa eta Faxa: 88 04 78  
Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN

**LEIAR**  
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824  
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070  
BEASAIN



Volkswagen  
taldea

**ANZIZAR, S. A.**

Autoelektrizitatea  
eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.  
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



Giro jator eta atsegina

**BASAKANA**

ITURRIOZ 11  
BEASAIN

**-EZKURRA -ATEAK**

Ateen ezartze eta salmenta  
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2  
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA



# Agenda

## Intereseko

## Telefonoak

Zumarragako Eritetxea: .....721614  
 Donostiako Erresidentzia: ..453800  
 Gurutze Gorria: .....272222  
 DYA: .....464622  
 SOS Deiak: .....088  
 Eguraldi informazioa: .....094  
 Errepideen egoera: .....288888  
 Ertzantza (Beasain): .....887350  
 Suhiltzaileak (Ordizia): .....881362  
 Renfe (Beasain): .....880853  
 Sarasola Garraioak: .....880710  
 Pesa Garraioak: .....880668  
 Estellesa (Donostia): .....470115  
 Itxaropenaren tfnoa: .....458005  
 HIES-SIDARI buruzko Inf.: 282666  
 Alkoholiko Anonimoak: .....276618  
 Goierrri Lanbide Eskola: .....880062



## Errezeta



**Juan Manuel Gar-mendiak emana**  
**Kattalin jatetxea**  
**Beasain**

### IDI-ISATSA SALTSAN

**Osagaiak:** Isatsa, patatak, azenarioa, ilarrak eta pattar piska bat.

Isatsa hartu eta puxketetan ebaki bere juntetatik. Gatzatu eta hirinetan pasa. Piska bat frejitu, eltze batera pasa, patta-rra gainetik bota eta su eman (flanbeatu). Haragi- saldarekin egosi bigundu arte (2 ordu inguru); salda erdira erreduzi-

tzen denean, patata borobil txikiak eginda, azenarioa eta ilarrak erantsi. Dena ondo egi-ten denean, oso bero zerbitza-tu, hoztu ezkerro oso gelatino-soa gelditzen bait da. Nahi izan ezkerro saltsari tipula, porru edota edozein berdura gaine-ratu lekioke, gozatu egiten baitute.



## Bota bertsoa



**Iñaki Murua**  
**Gaia: Ustelkeria**  
**agerian**  
**Doinua: Enbeitak erabil-**  
**tzen duen 9 puntukoa**

Rubiok urrearri musu  
 Corcuera korkoi kakatsu  
 ta Garzon-ena? Jakizu!  
 Soltxaga guztien maisu,  
 Albero, Asuncion ta De la Concha...  
 Hau non bukatzen da aizu!  
 Hiru adardun Roldanek ihes.  
 Putrea beleen izu?  
 Aizu Felipe laister Moncloan  
 bakar bakarrik zera zu,  
 ustel guztien kargu uztea  
 onartu behar baduzu.  
 Eta zerorrek, dimititzeko  
 asmorik ez al daukazu?

Ustel usaina etxean  
 ametsak zulo beltzean,  
 behazun-salda hestean  
 argitasun eskean,  
 Justizia nahiz Berdintasuna  
 saldu zenuten hastean.  
 Hanka eta esku beltzen aztarnak  
 batean eta bestean,  
 arerioak tripa igurzten  
 hobeak diren ustean.  
 Gure aitajaunak esaten zuen  
 holakoak ikustean:  
 "Usteltze'tzenik etzeok motell  
 agintera iristean".

## KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

*Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak*

**Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885854**  
**Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN**

## HAURREN BOUTIKEA

## UNANUE



Nafarroa etorbidea2  
 tel. 88 71 94  
 BEASAIN

## Carasa, Cilveti, Lacort y Cia., S.A.

Aseguruen Korreduria  
 Martin Alustiza

**Ekaitz Bulegoak** ☎ 88 69 53  
**Domingo Unanue, 3** **ORDIZIA**



### BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara  
 16etatik, 18etara  
Igandea: 11etatik, 14etara  
Lanegunetan: 10,30etatik,  
 14,30etara, aurretik deituz.  
 ☎ 80 17 24



# Agenda

## Debaldeko iragarkiak

### Lana

□Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAn. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Mekanografia lanak ordenadorez egiten dira. 882843 telefonoa, Eli.

□Barru-kanpoetan pintura-lanak egiten dituen profesionala naiz, lan haundiak ere egin ditzazket. Tfnoa.: 161213, Andres.

### Salerosketak

□Goierrri dut anuntzio. Euskara lagun duten enpresa, establezimendu, udal, zerbitzu eta profesionalak badute lekurik GOIERRITARRAn. Gure moduluen neurri eta tarifak 41. eta 42. zenbakietako 2. orrian daukazu zehatz. Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Dei 889612ra lehenbaitlehen.

□Karabana salgai, frigorifiko, sukalde, berogailu, e.a.-ekin. 887647 tfnoa.

□4 hilabete dituen inpresora HP520 salgai 887090 telefonoan.

### Etxebizitzak

□Pisu amoblatua alokatzen da Altamiran. Dei 1616160ra.

## Egutegiak

□LEGORRETA. **Korpus Jai Eguna (Ekainak 4):** 10,00: Diana dultzainariek. 11,30: Bilkoin KKEk antolatutako Herri Krossa (2 lasterketa, bata 11 urtera bitartekoentzat eta bestea 12tik gorakoentzat). Ondo-ren sari-banaketa. 18,00: IV Ardo dastatze txapelketa. 18,30: Udalak ardo bikaina eskeiniko du herritar eta bisitari guztientzat. Guzti hau "Nekaezinak" Txarangak alaitua. 19,30: Usariozko meriendak plazan, Txarangak alaiturik. Ondoren eta goizalderarte, Kalejira eta dantza saioa "Nekaezinak" Txarangarekin.

□ORDIZIA. "Poltsikozko Ikuskizunak" egitaraua. Lekua: Barrena Kultur Etxea. **Maiatzak 28, larunbata,** gaueko 10,30etan, Miguel Gomez magoak eskainitako saioa. **Ekainak 4, larunbata,** gaueko 10,30etan, "Dardar" taldeak "Tesoro mio" izeneko kafe-antzerkia eskainiko du.

**Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra:** Mari Luz Arenas-en pintura erakusketa.

□LAZKAO. "Euskaraz bizi" Ikastaroak: **Loragintza,** maiatzak 30 eta

ekainaren 6an (astelehena), iluntzeko 9etatik 10etara Udaletxeko aretoan, Xabier Murumendia-razen eskutik. **Oihal-pintaketa,** maiatzak 31 eta ekainaren 7an (astearteak) 19,00etatik 20,00etara, Gerriko txokoan Marina Pabliarlungaren eskutik. **Aho-soinua,** ekainak 1 eta 8an (asteazkenak), 21,00etatik 22,00etara San Prudentzio eskolan, Agustín Agirrerren ardurapean. **Sukaldaritza (postreak),** ekainaren 2 eta 9an (ostegunetan), 19,00etatik 20,00etara, Gerriko txokoan. **Dantza,** maiatzak 28 eta ekainak 4 eta 11an (larunbatak), 15,00etatik 17,00etara, Polikiroldegian, Joseba Arruabarrenak gidatuta. Izenemateak: 160282 edo Gerriko Liburudendan.

### Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

**Maiatzak 27-28-29:** Urbizu; **30:** Atorrasagasti; **31:** Azpilikueta. **Ekainak 1:** Jauregi; **2:** Larnaga; **3:** Cuesta; **4-5:** Arriola; **6:** Arriola; **7:** Urbizu; **8:** Atorrasagasti; **9:** Azpilikueta.

### Ordiziako Herri Antzokia:

**Ostirala 27, 10,15:** "La mitad oscura". **Larunbata, 28:** "El Piano", 7,30-10,15. **Igandea, 29:** "Dragon, la vida de Bruce Lee", 4,45; "El Piano", 7,30-10,15. **Astelehena, 30:** "El Piano", 7,30. **Ostirala, ekainak 3, 10,15:** "La leyenda del Sr. del Mal". **Larunbata, 4, 7,30-10,15:** "Philadelphia". **Igandea, 5, 4,45:** "Agarralo como puedes 2"; "Philadelphia", 7,30-10,15. **Astelehena, 6,** "Philadelphia", 7,30. **Ostirala, 10,** "Cronos", 10,15.

### Mendizaleak:

**Ordiziako Mendizaleak: ekainak 5:** Zalduendo- Aitzgorri.

**Idiazabal K.E.: ekainak 5:** Mendozako gaztelua (egun osoko ibilaldia).

**Beasaingo Aitzgorri M.E.: maiatzak 29:** Akanpada; **ekainak 5:** Uarain-Gañeta (1346 m.).

**Pausogaizto Goierriko Mendizaleak: ekainak 4-5:** Midi d'Ossau ohizko bidetik.

Ana Belén  
ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2  
☎ 88 26 31

LAZKAO



- Mediku akupuntorea  
- Pisuaren kontrola  
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



## ▼ Ordiziako azken azoka ▼



Arg.: Gema Arrugaeta

**Bertako produktuak:** No-bedadeak: bertakoak: lekak (baina), 600 p.-k. eta gerizak 500 p.; xixak (175 kilo), 1.500-3.000 p. artean; onttoak (10 kilo), 3.500 p. **Abe-reak:** Arkuma, (100 buru) 460-475 pzta.-k; antxuma, 465; untxia, 220. Gaztak: beheiena, 750-800 p.-k.; ardigazta, 1.350-1.600; nahasia, 950-1.200; ahuntz gazta, 1.300. **BarazkiaK:** azaburua, 80-150; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarrun beltza 700-900 k.; gorria eta zuria, 400-600; letxua 40-80 b.; patata, 100 k.; porrua 85-100 x. Kiwia, 150-250 k. tipulina, 60-100 k. **Kanpoko produktuak:** frutak: alberretxikua, 175-2250k.; banana, 140-225; kiwia, 225-250;

brinoia, 175-300; laranja 100-200; limoia, 150; geriza, 300-400; sagarra 110-200; udara, 200-250; marrubia, 225-250; meloia, 250-275 p.-k. **Kanpoko barazkiak:** baba, 200-250; horburua 250 dozena; Ilarra 350 k.; patata berria 75 k.; piper-gorria 325; berdea 125; tomatea 175-225; tipulina, 125 x.; zainzuria, 350 k.; **Arrainak:** amorraina, 600; antxoa 620; antxoila 1.090; bakailaua, 1.200; barbarina, 1.150; bixigua, 1.700-2.300; itsasoi-larra, 1.150; izokina 1.300; kariokita 810; legatza, 1.780; mediana 1.300; peskadila, 1.180; mihiarraina, 1.480; sardina 480; muxarra, 820; pota, 470; txitxarroa 680; txipiroia, 1.150;

Ana Irastorza

## Deialdiak

I. IGARTZA abentura eta misteriozko nobela lehiaketa antolatu du Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak. Helburua, gaztetxoek gustoko dituzten nobela mota hauen euskarazko sorkuntza bultzatzea. Edonork parte har dezake, adina eta nazionalitatea kontutan hartu gabe. Jatorriz euskaraz idatziak, argitara gabeak eta beste inon saritu gabeak izan beharko dute idazlanak. Gaia, librea den arren, guztien ardatza abentura edo misteriozkoa izan beharko du. Lanek gutxienez 50 folio izango dituzte eta irailaren 30erako Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura (Loinazko San Martin Plaza, z/g. 20.200 Beasain) bidali beharko dira. CAF eta Elkar argitaletxearen babesa du lehiaketa honek, eta lan saritua argitaratzeko konpromezua dute, egile eskubideak saridunari emanaz. Saridunari 500.000 pezeta eta oroigarria emango zaio.

III LAZKAO TXIKI Bertsopaper Lehiaketa. Argi-Berri Elkartek eskutik eta Ordiziako Udalaren laguntzaz, III Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa antolatu da. Lehiaketa 3 mailatan banatzen da: gaztetxo maila (14 urtez azpikoentzat), gazteen maila (14-17 urtekoentzat) eta helduen maila (1976a baino lehen

jaiotakoentzat). Parte hartzaileek nahi adina bertsopaper bidali dezakete. Gaztetxoek, bertsopaper bakoitzeko gutxienez 6 bertso eta gehienez 8 idatzi beharko dituzte. Gaia "Aurten kukuak zer berri?" izango dute. Gazte eta helduek, gutxienez 8 bertso eta gehienez 12 idatziko dute. Gaia libre. Lanak uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira helbide honetara: Argi-Berri Elkartea (Bertsopaper Lehiaketa) Gipuzkoa K. 15. 20240 Ordizia. Sari ederrak izango dira eta saribanaketa Irailaren 12an egingo da Ordizian. Informazio gehiago: 161676 edo 885228 telefonoetan.

"ASMUBE", Beasaingo Emakumeen Asanbladak Bertizgo Jaurerrirako txango bat antolatu du. Kideentzat 3.000 pzta.ko kostua izango du. Beste zenbait herriren artean Almandoz bixitatuko da, Iruñeako Planetariuma eta bueltakoan merkatal zentru handi batean egingo da sarrera. Izenemateak Elkartean, egunero arratsaldeko 3etatik 6etara. Beasaingo emakume guztiei egiten zaie dei.

## ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHFA

# AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE  
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO

## albisu

### KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón, 40  
Tel. y Fax: 88 71 58  
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)





**Iñaki Arin**  
(Generali  
aseguruak)

**Adibidez, 35  
urteko pertsona  
batek hil  
bakoitzeko eta  
22 urtetan zehar  
5.000 pzta.  
ordaintzen  
baditu, 8 milioi  
inguru  
kobratuko  
lituzke**

**J**ubilazio plana aurrezteko plana da. Aseguru duena aurreztera "behartzen" duen plana, beraz. Horrezaz gain, aseguru etxeek jende mordo baten dirua biltzen dugu, honela inbertsio handiak egiten ditugu eta bezeroari ordaindutakoa baino errentagarritasun handiagoa eskaintzen diogu.

Nola egiten den? Bai bezeroaren eta bai aseguru etxearen artean aurrezte moduaren epea hitzartu behar da. Aseguru etxeak ez du epe zehatzik finkatzen, baina badago baldintza bat: 3 urterako egin behar da gutxienez. Hau da, 3 urteren buruan bezeroak jaso dezake ordaindu duen dirua. Halere, iraupena nahi beste luza daiteke. Aseguruaren iraupena zehaztu ondoren ordainketa nola egin erabaki behar da. Hilabetero, 3, 6 hilabetero nahiz urtero egin daiteke diru sarrera. Diru horren zenbatekoa finkoa ez bada ere, hilabetero ordaindu beharreko gutxienezkoa 5.000 pezetakoa da

## Etorkizunera- ko aurrezteko plana

gure etxean. Halere, bezeroak gehiago ordaindu nahi badu, egin dezake. Eta noski, planaren amaieran diru gehiago jasoko du. Hileko 5-10.000 ordaintzea da normalena, aurrezteko kopuru egokiena delako. Egokiagoa da, hilerordez, diru sarrera urtean behin egitea: 60.000-120.000 pzta.

Planaren epea argi eta garbi edukitzea ezinbestekoa da, errentagarritasun handiena azken urteetan eskaintzen baitu planak. Epe luzerako eginak daude planok, epe motxera ez du etekin handirik ematen. Urtero dirua sartuz, kapitala pilatuz joango da, "bizirik" mantenduko da. Behin plana amaitu ondoren, hori

kapital moduan edo errenta gisa jasoko du asegurudunak. "Generali" k %6ko interesarekin eskeintzen du (ekainetik %4-4,5ra jeitsiko delakoan gaude); beraz, planaren bukaeran bezeroak %6ko interesarekin jasoko du urteetan ordaindutakoa. Aseguru etxeak berak egindako inbertsioei esker irabaziak lortzen baditu, irabazi hoienez portzentai bat ere eskuratuko du.

Adibidez, 35 urteko pertsona batek hil bakoitzeko eta 22 urtetan zehar 5.000 pzta. ordaintzen baditu, 8 milioi inguru kobratuko lituzke plana bukatu eta gero. Azken batean, planaren hasieran asegurudunak zuen eros ahalmen bera amaieran ere izatea da jubilazio aseguruaren helburua. Eta kobrantza epea amaitu ondoren egingo da, ez lehenago. Baina bezeroaren mesederako diren hiru salbuespen aurriskutatu dituzte planak, eta hauei esker, epea amaitu baino lehen jaso dezake dirua.

**LOINATZ**  
**Taberna**  
**Jatetxea**

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



**ARRANO**  
**Taberna**

**ogitarteko  
eta pintxoak**

☎ 88 74 47

Kale nagusia, 12

BEASAIN

**IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.**

**KARROZATEGIA**

Hiribarren, 24  
Tfnº. 88 95 83

20210 LAZKAO  
(Gipuzkoa)



## Besteek esana

### Lazkao eta euskara

Herri bakoitzak izaten ditu bere ezaugarriak, bestee-tatik bereizten dutenak eta Lazkao kulturak eta batez ere euskarak bereizten dute. Ezaugarri horren erroak eta zutoinak berriz, Benedita-rretan aurki beharko geni-tuzke. 1902.ean Frantziako Gobernuak Belloketik bota ondoren, Idiazabala etorri ziren eta gero Lazkaon koka-tu 1908 urtean. Berehala hasi ziren kultura zabaltzen sortu zuten ikastetxetik e.a. (...)Geroztik zenbat lan egin duen ez dago esaterik. 1982.ean Kultur Elkarte bihurtu zen delako Goiherri-ko Euskal Eskola eta HA-BEren esku geratu zen eus-kara irakaskuntza, HABEK Maizpide Euskaltegia erai-kita. Gaur egun, bai Maizpi-de Euskaltegiak bai G.E.E. Kultur Elkarteak euskal kul-tura eta euskara irradiatzen dute Lazkaotik alde guztie-tara.

Zorion Mujikak, "DV"-n,  
94-V-20.

## Inkesta

### Azterketetan egiten duzu "txuleta"rik?



**Joseba Gorostiza**  
ordiziarra, 18 urte  
LHko ikaslea

Ez dut sekula ere egin, nahiz eta saiatu naizen, ez naiz ausartu izan. Ez dut uste txuletak egiteko ba-lio dudunik. Beraz, ez dut behin ere egin, ez OHOn ibili nintzanean, ez eta orain ere Goierri Eskolan.



**Ruth Martin**  
ordiziarra, 17 urte  
LHko ikaslea

Bai. Egin izan ditut eta klasean atera ere bai; inoiz esamenen bat apro-batu ere bai txuletei esker. Normalean besoan ida-tzita. Gainera, orain arte ez naute sekula harrapatu, horretan behintzat zortea izan dut.



**Amaia Iztueta**  
ordiziarra, 15 urte  
LHko ikaslea

Egin ditudan arren, ez dut sekula atera, horretarako ez dut balio. Gainera behin txuleta eginda eraman nuen eta atera gabe lurrera erori zitzaidan eta irakasleak har-rapatu ninduen. Hala ere berarekin hitz egin eta, atera ez nuenez, azterketa apro-batu nuen. Gaur, portzierto, eguna ondo bukatzeko, ka-lera bidali naute!

## LA ESTELLES, S.A.

### DONOSTIAKO LEIHATILA

Bizkaia Pasealekua, 17

Tfnoa: (943) 47 01 15

### IRUÑEA-BULEGO NAGUSIA

Navas de Tolosa K., 27

Tfnoa: (948) 22 52 08

Faxa: (948) 22 52 07

### LIZARRAKO LEIHATILA

Autobus geltokia

Tfnoa: (948) 55 01 27

### LOGROÑOKO LEIHATILA

Autobus geltokia

Tfnoa: (941) 23 58 03

### ATAUN ETA DONOSTIA ARTEKO EGUNEROKO AUTOBUS ZERBITZUA

#### ATAUNDIK IRTEERAK:

7:30etan

10:15etan (Logroñotik datorrena)

14:30etan

18:15etan (Logroñotik datorrena)

#### DONOSTIAK IRTEERAK

8:00etan (Irundik datorrena)

13:15etan

16:00etan (Irundik datorrena)

20:15etan

#### ONDORENGO IBILBIDEAREKIN:

Ataun - Aia, Ataun - S. Gregorio, Ataun - S. Martin, Lazkao, Beasain, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Irura, Billabona, Andoain, Lasarte-Oria eta Donostia.

## KUKO Jatetxea

—Haragietan aukera handia

—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu  
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g

☎ 88 28 93

ORMAIZTEGI




## Ba al dakizu...?

### □ AURREKO

GOIERRITARRAn, al-dizkariari buruzko erreportaian koadro infografiko bat eman genuen 93 eta 94 urteetako diru-sarrerren banaketa zehaztuz. Aldrebestuak atera zitzaizkigun "tartak": 93ari zegokiona 94koan eta 94koa 93ekoan. Alderantziz izan behar zuen. Akatsa zuzendu eta urte ba-koitzari berea eman nahi genioke ohar honen bidez.

### □ INGURUAREN

degradazioa gero eta nabarmenagoa da, baita mendietan ere. Iharduera kaltegarriak asko dira baina denon esku dago arazoak gainditu eta Aizkorri eta ingurua babestea, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra eta Gipuzkoako Mendizale Federakuntzak ateratako triptiko batek esaten digunez. "Mendian oinez ibiltzen ohitu zaitez. Utzi zure kotxe edo motorra errepedea bukatzen den lekuan eta gozatu mendiak oinez. Aske dau-den txakurrek urtero sortzen dituzte kalteak artaldeetan. Errespetatu deza-gun artzaiei bizimodua: mendian,



eraman txakurrak lotuta. Ez inoiz botata zaborrik, ezta organikorik ere. Inork jasoko ez duenez, eraman zaborra etxera edo, behintzat, zabor hori batuko den lekuetara. Ez surik egin. Ez ebaki zuhaitz edo zuhaixkari-rik, ezta adar lehorrik erabili ere. Sua eginez ingurua nabarmenki ondatu dezakezu. Kasu oso berezietan ezik, sua egitea ez da inoiz premiazkoa izango. Aizkorri inguruan zenbait mendi-aterpe aurkituko dituzu (Aizkorri, San Adrian...). Erabili aterpe hauek, libreki akanpatu beharrean". Gomendio gutxi hauek ja-

rraitzea da Aizkorri eta ingurua babesteko egin dezakezuna. Gozatu bertako paisaiak, landaretza, fauna eta jendea, baina lagundu balio hoiek etorkizunerako gordetzen.

□ IMANOL Goikoe-txea geografoak Entzia-Urbasako mapa argitara berri du, inor galdu ez da-din. Lehendik, besteak beste, Aralar eta Aizkorri-koak atereak zituen.

□ "MARRON" (Joxe Ramon Agirre) ataundarraren "Lurra" espedizioak maiatzaren 3an lor-tu zuen Afrikako lehen helburua, Joxe Begiristainek esaten digunez. "Marron" munduko "Zazpi Haundiak" egiten ari da eta, Everest igo ondoren, Afrikako mendi-gailurrik altuenera iritsi da oraingoan, Kili-manjarora. Aurretik Mont Kenyara igo zen, Kilimanjarorako piskat egokitzeke. Etxera itzuli eta egun batzutan hemen izan ondoren, hila-ren 2lean aldegin zuen berriro, oraingoan Ameriketako McKinley (6.236 m.) aldera. Oraindik ere buru haustea sortzen dizkion bidai fi-

**UNTXUNDEI**  
**Garajea**



**OSINALDE**  
**Karrozategia**

☎ 88 28 21 - 16 07 06  
**ORMAIZTEGI**

**OSASUN**

BELAR ETA DIETETIKA DENDA  
NATUROPATA

*Eska ezazu eguna eta ordua*

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

*Lirain*

*Lurrindegia eta Opari Gaiak*

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

**TOKI-ALAI JATETXEA**

**Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...**

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



nantzaketa bideak jorratzen aritu da etxe aldetik ibili denean. Batez ere Antartidako bidaiaren kostuak kezkatzen du Marron. Bestalde ordea, dagoeneko oinarritzko hainbat laguntza ematen ari zaizkion babesleak esker onez aipatu zizkigun oraingoan ere, hala nola, jantziak eskuratzen dizkion Arrasateko Astore, Años Luz bidaiak eta Generali Aseguroak, adibidez.

**ENPRESA** txiki eta ertainei zuzendutako ihardunaldi bat izan zen Goierri Lanbide Eskolan hilak 12an. Bertan Jose Ignazio Arrieta (Eusko Jaurlaritzako kontseilari-ohia) eta Juan Manuel Barandiaran (Goieki-ko zuzendaria) mintzatu ziren. Goierri bailaran 200 bat enpresa badira, gutxienez, neurri txiki eta ertainekoak. Enpresa hauetako %80ak 10 langiletik behera dituzte eta enpresa handiagoen eskariak betez ateratzen dira aurrera.

**GOIERRIKO** Gurutze Gorriak bere zerbitzuak bultzatu eta zabaldu nahi ditu. Hala adierazi du duela urtebetez gero presidentea duen Juanjo Iturrioz ordiziarrek. Bere esanetan, 400 goierritarrek bes-teen alde egiten duten lanarekiko ezezagutza eta inkonprentzio haundia dago jendearen aldetik.

**SEGURA**ko Udalak antolatutako IX Fandango eta Arin-Arin musika lehiaketan J.L. Franzesena eta German Intxausti suertatu dira irabazle. Pieza hauek ekainaren 19an Seguran ospatuko den Euskadiko Dantza Txapelketan egingo dira publiko.

**ORMAIZTEGI**ko Irizar Kooperatibak %81 gehitu ditu salmentak eta %109 handitu du esportazio kopurua azken 4 hilabeteetan, Koldo Saratxaga zuzendariak jakinarazi duenez. Iaz, 4.315 milioi pezeta fakturatu zituen Irizarrek. Espainiako merkatuan lider da eta bere "Century" modeloari Britainia Handiko Urteko Autobusa saria eman berri diote, Europako eta munduko saririk ospetsuenetakoa sektorean.

**EZKIO-ITSASO.** Errepideko obrak ia gelditurik egon direla orain bi urteetatik eta bertako 250 bat metro "puntu beltz" bezala kontsideratu izan da. Urte haseratik, 10 bat istripu izan dira. Inguruko bizilagunak tentsio bizian bizi dira, edozein hots entzunda, istripua dutela berriro pentsatzen baitute.

**ZALDIBIA.** Rufino Iraola berriemaile: San Isidro egunak ekarri zigun berri malapartatua: Joxe Mari Goikoetxea "Xaro" hil da. Berez

abaltziketarra bagenuen ere, urte asko dira gure herrira etorri zela. Dena dela, azkenaldi honetan Donostian bizi zen. Elkar etxeko musika sailean egin zuen lan, erlazio publikoetarako arduradun moduan. Horrez gain, ETBko aktore eta aurkezle bezala da ezaguna Joxemari. "Terminus" zeritzon programan bera zen protagonista, Elene Lizarralderekin batera. Eliza puntaraino beteta zela eman zion herriak azken agurra maiatzaren 18an eta haren errautsak Larraitzen banatu ziren aurreko zapatuan. Bakean beza atseden!

**Iragarria** zegoen eran, maiatzaren 15ean jokatu zen herrian dantza sueltoko txapelketa. Eguraldia lagun eta aurrean jende mordoa txaloka zutela, 9 taldek jardun zuten lehian. Bergarako Eduardo Murumendiaraz eta Amaia Agirre atera ziren txapel-dun, 159 punturekin; 2., Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde: 150 puntu; 3., Ibon Elorza eta Olatz Nogrado: 148 puntu; 4., Joseba Aizpirtarte eta Alazne Gonzalez: 143 puntu.

**Azken** orduko berria: Joseba Mintegi intsumitu ordiziarra atxilotua izan zen 23ko goizean, Martutenera eraman zutelarik. Juan Carlos Albitos beasaindarra, berriz, Martutenen dago 3. graduari.

## Arkiupe

Tapizteria

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak  
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak  
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza

88 00 84

ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINETZADURA  
TAILERRA

**B I O K, C. B.**

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

## ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK  
ETA ABAR

-ESKAILERAK  
NEURRITARA



Beko kale, z/g.  
Tel. 88 71 26  
Faxa: 16 10 77  
ITSASONDO  
(Gipuzkoa)

## ORDIZIA

### AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta 88 72 76

## JAUREGI

### TOLDOAK s/l

Tfonoak: 880243 - 880133

BEASAIN




## Goierri Lanbide Eskola, gorantz azken urteotan

**64.ean sortu zen. Historia luzea du, beraz. Lanbide Heziketan Goierriko eskola bakarra dugu. Ikastetxe honen berezitasunik nabariena duen titularidadea da, bertako Udal eta enpresa asko baitira titularrak.**

Orain dela 4 urtetik bertako zuzendaria den Jesus Mari Gaztañagarekin elkarriketa luze bat izan dugu. Soldadurako zentru piloto gisa onartua, LH-tan Goierriko bakarra da Eskola hau: "Horregatik Eskola Publikoa bezala kontsideratzen dugu gurea; Administrazioak bere arauak ditu publiko/ez publiko bezala kontsideratzeko zerbait, baina titularrak instituzio publikoak direnez, eskeintza publikoa eta zabala izanda, bada publikoa. Halere, batzutan pribatutzat hartzen da. Gertatzen da Fundazioa instituzio juridiko pribatu bat dela, Udalak bertan egonda ere".

**G.- Euskaraz, erdaraz, zein eredu linguistikotik dituzue?**

**E.-** Momentu honetan, REM euskara hutsean ematen da D ereduari, Modulo Profesionalak ezik. Zergatik? Modulo bide horretatik datozen Eskolako ikasleak dira, gutxi batzuk datoz kanpotik. Hor egoten da betikoa, nahasketa bat, ikasle euskaldunak/erdaldunak... eta "ofizialki" behintzat, orain arte moduloak A ereduak izan dira. Gero klaseetan esplikazioak euskaraz ere ematen dira. Halere REMeko 6 taldeetatik 4 D ereduari ari dira, egoera ona



Jesus Mari Gaztañaga, Goierri L. E.-ko zuzendaria

Arg.: Dioni

da, uste dut hemendik gutxira Moduloak euskaraz emango direla. Egoera erabat desberdina da LH-n. Denetik daukagu. Ikasleak sailkatzen ditugu: D ereduak datozenak D-n sartzen ditugu, eta B-tik datozenak batzutan A-n eta beste D-primari edo B-ren antzeko taldeetan. Halere, kontsideratzen ari gara LH I talde guztiak D eta B ereduak izatea. Hemen oztupoa dugu B eredu desberdina dela ikastetxeetan eta gero hemen topatzen dira. I zikloan, A eta D erdika dira. Prolema larriena II zikloan dator: espezialitatez banaturik dago eta A eta D ereduak datozenak espezialitate batean elkartzen dira eta oso zaila gertatzen da D ereduak kurtsorik lortzea. Aurten lortu dugu elektrizitateko euskarazko taldea osatzea.

**G.- Badago irakasgai-material tekniko faltarik?**

**E.-** Aipatu elektrizitate-talde horren-

tzako iaz osatu gabe zegoen materiala osatu da aurtengorako. Prolema talde euskaldunak sortzean dago, ez materiallean. Ziklo osorako materiala sortzea ez da arazoa izango. LH-ko 2. maila honetan euskaldun eta erdaldun taldea daude espezialitate baten barnean, ikasle kopurua dela eta, Administrazioak ez digu banatzeko aukerarik ematen. Horretaz gain, Administrazio aldetik nahiko mugak ditugu, talde gehiago jartzeko pegak jartzen zaizkigu, planifikazioaren barruan ez dela sartzen...

**G.- Berrikuntza handiak egiteko oztoporik ez, ala?**

**E.-** Esan beharra dago inbertsio aldetik laguntza osoa izan dugula Administrazioetik. Orain dela 4 urte berrikuntza teknologikoko proiektu bat aurkeztu genuen, soldadurako tailer bat osatzeko, azken teknologia puntarekin e.a.

### MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m.
- ▲ Elbruk 5.633 m.
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m.
- ▲ Vinson 4.897 m.
- ▲ Aconcagua 6.960 m.

**Zorionak  
Marron**



**GENERALI  
Aseguroak**

**IÑAKI ARIN BAZTARRIKA**  
Oriako Pasealekua, 20  
Tfona: 88 87 02  
BEASAIN




## “Goierri” L.E.

100 milioiko laguntza izan genuen, Gobernu Hezkuntza eta Lan sailetatik, Diputazioetik, Fundazioaren, Udaletxeen eta enpresen laguntzarekin. Hor sartzen ziren soldeatzeko 60 kabina eta makina, mota guztietako soldaketa prozesuak, robot industrialak, zenbakizko kontrolak ebaketako plasma makina, e.a. Gutxira, duela 2 urte, zentrua berritzeko proiektu zati bat onartu ziguten, 45 milioi. Eskolati-ko irteera berri bat egin genuen, zaharretik 800 ikaslek ateratu behar baitzuten batera. Iaz erabat “aurpegia garbitu” genion zentru guztiari, despatxu eta aparkamendu berriak, 125 milioi.

### “Goierri-korapiloa” askatuz

Administrazioarekin akordio bat sinatuta dauka GHE Fundazioak udal zentru publiko gisa. “Uste dut publiko kontsideratze hori kontutan hartu dela halako laguntzak emateko”. Finantziarioaren gehiengoa Hezkuntza Sailetetik dator. Aipatutako konbenioan adierazten da Eskola honek beste ikas-tertxeek baino finantziario maila altuagoa euki behar duela. Ikasturtearen ejertzizioa orekatsua gertatzen da: dirutan igeri ez badabilta ere, ekonomiarazoz larririk ez. Hezkuntzako kome-  
nioak kurtsoak erdi-dohain emateko konprometua dakarte. Hileko mila pe-  
zeta kobratzen zaie ikasleei. “Azpimarratzekoa da, horiez gain, udaletxe eta enpresek gurekiko duten inplikazioa. Urtero 30-40 milioietako inbertsioa egiten dugu. Hortik gehiena udal-enpresen urteroko kuotarekin ordaintzen da, laguntza handia da guretzat”. Diputazioak ere laguntzen die azken urteotan.

Lanbide Heziketan beste “ikasgai” bat da praktika. “Ikaslan” zentrua




Beren ikasketak bitan bereizten dituzte: irakaskuntza arautua (1.100 bat ikasle) eta ez-arautua. Arautuan LH (FP) I eta II eta duela 9 urtetik Irakaskuntza Ertainen Erreforma (REM) (300 bat). Irakaskuntza ez-arautuan hezkuntza okupazionalerako urtebeteko ikastaroak dituzte (5 oraintxe), langabetuei zuzendutako; formazio iraunkorra izeneko ikastaroak ere badituzte

arratsaldez, erreziklatu nahi duten langileei zuzendutako. Horrez gain Lanbide-hastapenerako 4 tailer daude eskolaz kanpoko sekzio bezala (basozaina, okindegi- gozogintza, txapa-pintura, igeltsua). Lanbide orientatibea eta heziketa teoriko-praktikoa ditu, besteak beste, helburu. Eskolan kokatuta egon arren, arduradun bereziak eta aparteko martxa daukate.

Fundazioaren barnean dago, Eskolatik aparte. Azken kurtsoko ikasleek jor-  
nada erdia ikasten eta bestea lanean botatzen dute. “Hor produkzio-tailerra dago eta irabaziak ematen ditu. Eskolak ez du ezertxo irabazten. Ikasleek, bertan egindako lanari esker, laguntza ekonomiko bat dute. Batzutan laguntza hori eskasegia dela eta kritikak egiten zaizkio horri, baina hori ala ez balitz, Ikaslan aurrera ateratzea zaila litzateke. Halere, aberastea ez du helburutzat, eta hortik ateratako etekinak bertan inbertitzen direla”, esaten die kritikoei Jesus Marik. Horrela lortu ahal izan dira egungo instalakuntzak.

“Goierri” Zerbitzu teknologikoa ere Eskolaren egituraren sartua dago. Enpresen beharrak (informazioa, ikastaroak...) asetzeko sortu zen, proiektu dotoreak sortu eta mesede galanta egiten du, aidanez. Injineritza teknikoko eskola bat bertan altxatzea utopizat daukate, baina gogoz lan eginez gero, gauzak lortzen direlakoan dago Ordiziakoa. Gaurtik biharra ez da lortuko, baina orain arte lortu dutena garai bateko amets gauzatu bat da.

Jon Mikel Arano



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran**  
**ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72  
BEASAIN



# “Hezi Kolektiboa”, lana bilatzen laguntzeko

**G**oierrin lan bila eta aurkitu ezinean dabilzan gazte langabetuek ba dute itxaropen izpi bat pizteko modua: 16 13 63 telefonoa markatu eta Hezi Kolektiboarekin harremanetan jarrita. Baina bertara hurbiltzen direnei ez zaie lanpostu bat aurkituko, norberak aurkitzeko beharrezko laguntza eman baizik; hau da: informazio, orientazio eta motibapena. Zazpi gaztek osatzen dute kolektibo hau eta garbi utzi nahi dute ez direla enpresa bat, dirua egiteko helbururik ez duen elkarte bat baizik.

Duela gutxi, Seguran, Espainia mailako ihardunaldi batzuk egin dituzte, prentsan azaldu dira eta kalean ere publizitatea eginez ezagutzera eman dira; hala ere, ez dira berriak. Hezi sortzeko ideia, enplegu heziketan esperientzia zuen talde batetik sortu zen. Ikusi zuten lan merkatua zaila dagoela eta gazte askok ez dutela lana aurkitzeko bitarteko edo teknika egokirik. Hezikoen ustez, “gazteak lan egin nahi du baina ez dauka argi zertan lan egin nahi duen edo egin dezaken. Norbere ezaguera eta gaitasunak zeintzuk diran jakin behar da lan bat aurkitzeko”. Honen aurrean, informazioa eta laguntza eman ziezaieketela pentsatu zuten. Gipuzkoa mailan aurkeztu ziren eta Jaur-laritza eta Foru Aldundiarekin lortu-tako hitzarmen batzuei esker zenbait ikastaro eman zituzten.



Hezik antolatuta Seguran eginiko “Araña”ren ihardunaldiak

Aldi berean, Espainia mailan lan egiten duen Araña enplegurako elkar-teen sarean sartu ziren. Koordinazio honekin esperentziak elkartrukatu eta ideia gehiago jaso ahal dezaketela pentsatzen dute. Arañan, Lan Promoziorako Zentruak sortzeko “Labora” izeneko proiektua jarri dute martxan. Zentru hauetan, harrera indibidualizatu, zuzena eta dohainekoa egingo zaio jende gazteari (helduagoei ere muzinik egingo ez bazaie ere).

### Langabetu eta ez “parado”

Orainarteko bi urteak zerbitzu hau eskeini ahal izateko prestatzen aritu dira, bakoitzaren esperientzian oinarriturik, materialeak bildu, ikasi eta azpiegitura sortzen. Ikastaroak emanez lortu duten diruarekin proiektua martxan jarri ahal izan dute. Pertsona bat egun erdirako liberatu eta hobe lortu bitartean Ordiziako Sta. Maria kaleko lokal txiki batetan daude. Dagoeneko

hasiak dira ezagutarazten: “Orain kalera ateratzeko moduan gaude, Lan Promoziorako Zentru bezala lan egiteko. Ordizian kokatuta ba-gaude ere Goierriko gazte guztientzat gaude irekita, informazio, orientazio eta motibapena lantzeko prest. 92an Ordizian egin zen azterketa soziologikoak dienez, gaztediak enplegu mailan duen desinformazio eta desorientazioa nabarmena da. Guk ezberdintasun bat egiten dugu erderazko

«parado» eta langabetuaren artean, lehenengoa INEMen zenbaki bat da, bestea berriz lan bila dabilen pertsona. Bigarren honi lagundu nahi diogu: pertsona bakoitzarekin hitz egin, fitxa bat bete, zer egin dezaken ikusi, lan mundura iristeko teknikak edo zubiak zein diren azaldu, formazio egokia non lortu etabar.”

Gaur egun Ordiziako Udalarekin harremanetan daude lokal bat lortu ahal izateko. Honez gain INEM, Adeg, Eustat eta beste hainbat erakundekin dituzte harremanak. “Adegiren bidez lan merkatua non dagoen jakin nahi genuen baina enpresariak beraiek ere ez daukate inongo azterketa orokorrik eginda”, azalgu digute. Hala ere erdi tekniko, erdi psikologo, erdi soziologo hauek lagunduko diote behar duenari lana bilatzen.

 Mikel Albisu

## BERRIZ ARANBURU

### ERROPADENDA

Nagusia, 8  
Tel: 88 04 53

BEASAIN



Tfona: 885500 ORDIZIA



## Armaolako zubia berritua

Gabonak inguruko uraldiek zubiaren matxoia edo ku+a eraman zuten, ondoren zubiaren ezkerreko begia mugitzen hasi zen. Hasi batean 22 bat tona harri bota zizkioten erdiko zutabeari, baina azkenean zubia berritzeari ekin zioten. Ura zubiaren alde batetik eta bestetik bideratuz, oinarri guztiak indartu, begiak sendotu eta bixeradun matxoi berria jarri diote. Zubiaren harlosez baliatuz gaineko pareta ere berritua da. Lan honetarako kanpotik ekarritako hargin bereziak ibili dira eta gastuak Udala eta Diputazioaren gain joango



Armaolako zubia berritu ondoren

dira. Segurako zaharrena izan daiteke, San Adriandik Urtsuaran aldera zihoan bidea zubi honetatik pasatzen zen.

Gaurregun bi begitakoa bada ere, biak eraikuntza desberdinetakoak izanik, garai batean begi bakarrekoa izan zitekeenaren susmoa ere bada.

### Pelotan finalera bidean

Herri herriko txapelketan Azkoitia kaleratu ondoren, finalerdietako joaneko partiduan 1-2 irabazi zion Arrasateri Segurak. Buelta-ko partidua hilaren 27an, ostirala, gaueko 10etan jokatuko dira.

 Joseba Telleria

## IDIAZABAL

### San Adriango prozesioa

Maiatzaren azken 3. egunean, 29an hain zuzen, bada gure herrian izen handiko irteera bat. Ospakizun hau ez da atzo sortutakoa, aspalditik datorkigu ohitura idiazabaldarroi, gizaldiz gizaldi. Gehienoi ezaguna egingo zaizuen San Adriango irteerari buruz ari natzai-zue. Garai batean oinez egiten omen zen; Idiazabaldik irten, Segura zeharkatu eta Zegamako herrian barrena, San Adriango malda koxkatuei heltzeraino. Gaur egun, berriz, oso jende gutxi egiten du ibilbide dotore hori oinez eta, hankak gaizki edukitzearen aitzakiaz edo, autobusa erabiltzen da funikular gisa ia-ia kobaren magaleraino hurreratuz. Gainera, nire belarrira iritsi den txutxumutxu hau egia baldin bada, aspaldi hartan emakumerik ezin omen zen joan zorioneko ospakizun honetara; geroago gizonezko gutxi joaten zirelako edo, emakumezkoei ere baimena eman zitzaien. Lehen aste egunez egiten zen, baina orain igandera pasa da.

Idiazabalgoak ez zaretenoi bi hitzetan eskeiniko dizuet "albistea". San Adriango irteera honen arrazoiak Idiazabalek Partzonerian ganaduak larrean edukitzeko duen eskubidea ez galtzea da. Irteeran badira zenbait ekintza: lehenik autobusa hartu behar izaten da (Mujika jatetxearen aurrean goizeko 7-retan), taldean joan nahi bada behintzat. Gero autobusak kobaren magalean utzi ohi ditu bidaiariak eta beraien lana aldapa neketsu hura igotzea izaten da. Baina behean aguazilak "depositoak" gasolinaz ez baino paltarrez betetzeko aukera eskeintzen duenez, batzuentzat ezer gutxi suposatzen du aldatz hark. Goian, kobako ermittan meza eman ohi da eta hura amaitzean denak behera berriro beraien eserlekue-tan esertzea. Halere berehala altxatu behar izaten omen da ipurdia aulkitik, izan ere Zegama eta Segura oinez igarotzen baitute prozesioan "izalzarrek". Seguran autobusak Malkorra baserrian

egiten du geldialdia eta Jermanenean jasotzen ditu prozesioan doazen alkate, apaiz, dantzari-txistulari eta orohar herritarrak. Prozesio garaian alkateari Segurako alkate edo alkatesak aginpi-dea ematen dio zigor baten bidez. Hone-l, prozesio garaian, Seguran Idiazabalgo alkateak agintzen omen du.

Guzti honek antzerki bat badirudi ere, guretzat ohitura bat izaten jarraitzen du eta goizez San Adrianen hasten dena arratsaldean herriko plazan amaitzen da, berriro ere ardoa eskeiniz hurreratzen den guztiari eta norberak bere afaria prestatzeko aukera duela. Hone-la igaro ohi da urtero egun hau hemen eta inork bizi izan nahiko balu, datorren urtean bada ere, gonbidaturik geratzen da.

 Aloña Galarraga



## Arazoak igerilekuekin

Lehentxeagoko urteetatik arrastaka datorren arazoa dugu igerilekuena. Ormaiztegiko igerilekua, nire gustorako behintzat, inguruetako politena da uda parterako: aparkatzeko eroso, ameez jolasteko eta kirolerako aukera askorekin, lasaia, eguzkia bai baina itzala nahi duenarentzat arbolape ederra ere bai... zenbat arratsalde atsegin ez ote dugu pasa han! Baina, dirudienez, osasunaren eta segurtasunaren aldetik eskatzen diren neurriak ez ditu betetzen. Eta aurtengoan ere izan da ia urteroko mehatxua: gauzak konpontzen ez badira, igerilekuak irekitzeko baimenik ez dela izango.

Arazorik nagusia uraren kalitatea da: gaur egungo ur-garbigailuek Osa-kidetzak eskatzen duena baino motelago garbitzen dute ura. Eskatzen dena betetzeko makina berriak erosi beharra dago. Eta horrez gain beste aitzakia batzuk ere bilatu dizkiote: igerilekuak ez lukeela eskolaren ondoan egon behar, aldagelak gertuago behar lituzkeela, igerilekurako sarrerak eta bueltan oinezkoentzako dagoen esparrua ez direla egokiak, igerileku txikiko burnidura orlegi hori arriskutsua izan daitekeela.

Hori guztia konpontzeko berriz, denok dakigu, dirua behar da: 30en bat milioi aipatzen dira, eta oraingoz ez



### *Eskolaren ondoan daude igerilekuak*

*Arg.: I. Amundarain*

dirudi Aldunditik laguntzarik izango denik. Auziak zertara eramango duen ez dago batere argi, baina badirudi aurtengoan igerileku txikia behintzat ez dela irekiko. Erabakia, dena den, hurrengo egunotan hartu beharko da. Egon adi!

## Naturaren astea

Aurreko larunbatetik hasita natura-  
ren inguruko ekitaldiak ari dira egiten  
herrian. Asteburu honetarako ondo-  
rengo hauek daude antolaturik: † Os-  
tiralra (27), 19,30etan, kultur aretoan,  
filmina-emanaldia: “Amazoniako  
oihana”. † Larunbata (28), 11,00etan,  
herria eta erreka garbitzera dei egiten

zaio ahal duen guztiari. Horrez gain argazki-erakusketa bat jarriko da Udaletxeko arkupean, "Gure zaborrak" izenburuarekin. ✚ Igandea (29), 12,00etan, animalia eta landare erakusketa kultur aretoan. Ekitaldi guztiak dira interesgarriak, baina bat azpimarratzekotan, nik larunbateko herri-garriketa nabarmenduko nuke: jabetu behar dugu ingurunea zaintzea guztion eta gutako bakoitzaren lana dela, eta denok lagundu behar dugula. Ea nolako erantzuna izaten den.

 *Iñaki Amundarain*

## EZ EGON BEGIRA !

Z·M

**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA**  
Ormaiztegi · Gipuzkoa  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Casa . Iriarte Erdikoa . Etxea  
20.016 Ormaiztegi - Gipuzkoa  
Tlf.: 943 - 88 99 00  
Fax: 943 - 88 01 38

## ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK,** eta abar.
- **MUSEOKO EKINTZAK:**
  - **Ikonografia lantegia:** musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
  - **Goierriko neska-mutilentzako ariketak:**
    - \* Astelehenetan: 12-14 urte.
    - \* Asteazkenetan: 9-11 urte.
    - \* Ostiraletan: 6-8 urte.

**Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoan bidez!**  
**BISITA ORDUTEGIA:**  
 Astelehenerdik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.  
 Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.  
**SARRERA DOHAINIK**



Legazpi kalea, 4  
Tfona: 880406  
ORDIZIA



## Kirola nagusi oraingoan

**OH**ilak 14ean Legorretan lehiatutako Euskadiko Jubenilen 2. mailako Txirrindulari Txapelketan Iñaki Sarasola ordiziarra sailkatu zen 2. postuan. Agus Ulanga eta Iñigo Zuasti ere 5 lehenen artean sartu ziren helmugan.

**O45.** zenbakian Ordiziako Saskibaloitza Taldeari tarte bat eskeini zion GOIERRITARRAK. Leku faltaz, ez zen atera ondoren datorrena: orain dela 2 urte, 2. dibisioan zeuden gipuzkoar saskibaloitza talde guztiak 1. dibisioko Askatuak taldearen menpekoak egin zirela; OSTa diru kontuan larri ibili arren, makurtu ez zen bakarria izan zen. Penagarria izan arren, badirudi horren ordaina jasaten ari dela, zenbait arbitroren jokaera ikusita. Herrikideok diotenez, Gipuzkoako saskibaloiean ezarrita dagoen boterearen aldetik, nolabaiteko baztertzea nabari da.

**OS**askibaloiarekin segiz, neska-taldeak Federakuntza Txapelketarako finalean sartzea lortu berri du. Kadeteek ere txapelketa berberean aurrera darraite. Aipatu baita ere Jakintza eta La Salleren artean erabakiko dela Eskolarteko Jokuen titulua.

**OA**urreko batean genion kronika honetatik nola Udalak utzi zuen Altamirako futbol-zelaia Rugby Taldearen eskuetan, behin behineko irtenbide moduan. Geroztik, logikoki, etorri dira OKeren "kexak". Klubaren eta Udalaren arteko hitzarmena oztopatzen duela eta gaiari benetako amaiera emango zaiolakoan dago.

**OS**ortzekotan dabil merkatari eta ostalarien elkarte berria. Talde bultzatzailearen eta "Ordizian"etik geratzen zenaren arteko elkartzea gauzatu da dagoeneko.

**OA**zken alean adierazi genizuen bezala, sortu berria da Ordizian euskara bultzatzea helburutzat duen Elkar-tea: "Hitzaro". Maiatzaren 20an egin zen azken bilera eta bertan Arduradun Batzordea osatuko duten 10 kideak nortzuk izango diren erabaki zen. 16 hautagaien artean hauek izan ziren aukeratuak: Andoni Eskisabel, Juanita Amundarain, Maite Irastorza, Mikel Oiartzabal, Aitor Asurmendi, Joxe Luis Gonzalez, Joxe Mari Barandiaran, Karlos Mintegi, Olatz Arantzabal eta Garikoitz Telleria. Hemendik aurrera lan-talde desberdinen osaketa burutzea izango da hauen lanetariko bat. Lokalari dagokionez, esan Udala Altamiran Erosle parean dagoen merkatal-baju bat uztekotan dela eta hitzarmena pres-tatzea besterik ez dela geratzen.

 Aitor Calvillo Zurutuza

## EZKIO-ITSASO

## Udaletik proiektuen berri

Gaur egun gure herrian zein proiektu aurrera eramango den eta zer egiten ari denaren berri jakin ahal izateko, Hiri-gintza zinegotzia den Jose Mari Zumarragak honako hauek aipatu dizkigu:

● Sta. Lutzi auzoan aldaketa handiak nabari dira azken boladan. Alde bate-tik, gunean bertan, jada bukatuak dira etxebizitzak, eta bestetik, gunetik Uda-letxe bitarteko hasi berriak diren 14 etxebizitzaren eraikuntza. Azaroaren bukaera alderako amaituko omen di-tuzte. Honela, arauetan aurrikusten den Ezkio-Itsasoko behe aldea garatua li-zateke.

● Istripuak direla eta, hain ezaguna dugun Beasain-Durango errepedeko Sta. Lutziko industrialdeko 300 me-trotako zati hori, Errepide Arduraduna den Luis de los Mozos-en esanetan, ekainean hasiko dira konpontzen. Di-putazioan onartu dute proiektua; ho-

nek, ondorioz, ADU-8 Industrialdea bukatzeko aukera emango luke.

● Diputazioaren dirulaguntzaz, burutu da autobus geltokien lehen fasea. Orain PESA autobus enpresarekin busak ai-patu lekutan gelditu daitezkeen negozia-tzen ari dira.

● Herriko goi gunetan saneamendu eta urbanizazio lanak laister hasiko di-rela uste da. Orohar, akondizionatze prozesuak jarriko lirateke martxan.

● Diputazio-GOIMENi dirulaguntzak eskatu zaizkio bi baserrian ura bila-tu-zulatzeko, Berroetarako bidea kon-pontzeko eta Ariola eta Zearia (Matxi-menta) baserrietara bideak porlantzeko.

● Diputazioak Udalarari etorkizunean Museotarako erabiliko den Igartu-Bei-ti baserria zaharberritzeko proiektua aurkeztu dio. Onartuta, martxan da be-rehala.

● Herritar gehienok dakizuen bezala, Udalak Alegiako Kooperatiba erosi zuenean botatzeko baldintzarekin har-tu zuen. GOIERRITARRA eskuetan duzuenarako hasita izango dira lanak. Honekin Elizaren itxura hobetuko da eta ingurua urbanizatu ere bai.

● Arrakasta handia izan dute Itsason eskeini diren zeramika ikastaroek eta Kultur Etxean eman diren informatika-koek. Orain, parte hartze handia due-larik, Alegian josteta ikasi ahal da.

● "Eup!", Ezkio-Itsasoko herri aldiz-kariaren 7.a bi herriek bat egin zutene-tik ezagutu ditugun hiru alkateekin solasean aritu zaigu. Bada beste ira-kurgairik asko ere. Kolaborazioak es-keiniz, iritziak botaz edo nahi duzuen moduan aldizkari honen gauzatzean animatuko bazinete, gure ongi etorria.


 Pilare Mujika



## Zinema-aretoa egiteko laguntza

Gipuzkoako Foru Diputazioak datozen lau urtetako onartu duen kultur ekipamendu aurrekontuan, Ataungo zinema-aretoa egiteko 10.000.000 pezetako laguntza agertzen da. Udalak hiru aurreproiektu aurkeztu zituen Diputazioan: Zinema-areto berria, San Martin-go mediku-etxea kultur-etxe bihurtzearena eta San Gregorio-riko eskolak eraberritzearena. Azken bi hauek atzera bota dira.

Zinema-aretoa, futbol-zelaian egitekoak diren babes ofizialeko etheen inguruko urbanizazioan aurrikusia dago, etxe hauen aurrekaldeko plaza izango denaren azpian. Aretoak, zine proiektziotarako kabinaz gain, antzerki, musika, jai ikuskizun eta antzerako gauzetarako prestatutako eszenatoki bat izango du bere aldagelak eta guzti, ia 300 eserleku, atalon-



doa, lehiatila eta komunak. Guztira 470 bat metro karratu. Iazko abuztuan egindako aurreproiektu honek 34 milioi pezetako aurrekontua du.

Udalak ez du kontuan izan zinema-aretoa aurtengo aurrekontuan, etxe berriak noiz egingo zai. Badirudi ordea, lehen aikatutako etxe berri hauen eraikintzari ekiteko pausoak bide onetik doazela eta laister izan ditzakegu berriak alde hontatik.

### Hautagairik ez

Eskola Kontseilu berria osatu ahal izateko, gurasoen ordezkaritza izango luketen hautagaiak aurkezteko epea bukatu da. Inongo gurasok ez du azaldu lan horretarako borondaterik. Hautagai bat bera ere ez da aurkeztu.

 Joxe Begiristain

## LAZKAO

## Talogileak eta Antzar Gazteak Martutenen

Maiatzaren 15ean, igandea, Martuteneko espetxean izan ziren gure herriko talogileak eta txarangako gazteak, bertan preso dudenentzat taloak egin eta alaitasun piska bat eramaten. Lazkaotar presoak den eta Martutenen daukaten Ramon Begiristainek eskatuta, presondegiko zuzendariak onartu egin zuen eskaera eta ezin gustorago joan ziren igande goizean lanera bai txarangakoak eta bai talogileak. Talogileak baserritar jantzita eta txarangakoak "igandeko bruxaz", goizeko 9etatik 12'30ak bitarte nahikoa talo egin omen zuten eta ez omen zen dantza egin gabe inor geratu: preso politiko zein komunak, zaintzaileak eta zuzendaria bera ere, gustora aritu omen ziren guztiak, horrelako leku ilun eta beltzetako eguneroko tristura poz eta alaitasun bihurtu zitzaielarik hiru bat orduz.

Giro ederren ederki pasa zuten,

baina laburra gertatu omen zitzairen eta edozein despedida baino tristeagoa, agur esan eta lagunak barruan utzita alde egin beharra... Nola eskertu ez zekitela eta moralez gainezka daudela, berriz ere joateko eskatuz agurtu omen zituzten presoek. Esan beharra dago ekintza honen kostua zenbait partikularrek hartu zutela beren gain: artirina Errotaundi okindegiak jarri zuen, txistorra Joxantonio Oiarbide harakinak, hirugiharra eta txokolatea Erosle dendak eta lanaz gain txaranga egin zen joan-etorriaren gastuen kargu.

Nola Martutenera hala beste edonora ere, baimena lortuz gero prest daude berriz ere horrelako saioa errepikatzeko.

### Adei Barandiaran itxialdian

Adei ere Valdemoroko espetxean daukate eta apirilaren 17tik erabateko

itxialdian dago gainera. Zenbait preso, pare bat egun baino gehiago egin behar ez lituzketen gelatan, isolamendu-zeldatan omen daude 8 hilabete luzez, zelda normaletara pasa gabe. Bizi baldintza negargarrietan, noiznahi arakatzan dituztela eta abar, eguna joan eta eguna etorri. Horrelako egoeran aurkitzen diren kartzela-lagunei elkartasuna adierazi eta isolamendu horretatik lehenbaitlehen atera ditzatela eskatzeko Adei eta beste preso politikoei itxialdia hasi zuten: bazkaldu eta afaltzera soilik irtetzen omen dira beren gelatik, gosaltzera ere ez, bitartean gela itxi eta sartzen utziko ez dieten beldur. Zerbait lortu arte horrela jarraitzeko asmotan omen dira.

 Mari Joxe Madariaga  
Argider Mujika



**O**festak akitu baldin badira ere, izan da klase guztitako ekitaldirik Loinatzetan. Maiatzak 14ean kirolez blai aurki zitekeen Antzizar Kiroldegia, esaterako. Goizean, Gipuzkoako eskolarteko txapelketaren barne, areto futboleko finalerdiak jokatu zituzten mutil alebinek eta neska infantilek. Kirol istalakuntzetako Espainia osoko zenbait teknikari eta Madril inguruko alkate eta zinegotziei harrera egin zitzaizen; kirol erakustaldiak egin ziren eta kiroldegiko bideo-gelaren, taberna-kafetegiaren eta futbol zelai inguruko pistaren inaugurazioari ekin zitzaion gero; arratsaldean eskuzko eta pala motzeko Beasain Hiriko finalak jokatu ziren maila desberdinetan.

**A**rranok antolaturiko urteroko baserriko feria berezia arrakastatsu joan zen. Hoberen hornitutako postuen sailean, Arriarango Iturritzako Estefania Albisu, Murugoeneko Inaxi Aranburu eta Lazkaoko Untzundegiko Frantziska Gerra izan ziren sarituak. Produktu hobereenean, Inaxi Aranburu, Estefania Albisu eta Julio Garmendia. Bertako produktuetan, Inaxi Aranburu, Intxaurrendoko Josepa Bergara eta Estefania Albisu. Lore sailean, Zaldibiako Iñaki Azantza, Francisca Murillo eta Beasaingo Maria Rosario Txintxurreta izan ziren irabazleak.

**F**esta-bezperetan onartu ziren Udalerriko aurrekontuak. 1.334 mi-



Eskaparate Lehiaketa: 1. saria, Fotoetxe; 2.a, San Martin supermerkatua eta 3.a Joakin Agirre merkataria  
Arg.: Unanua

lioitako aurrekontu honen alde azaldu ziren EAJ, EA, PSE-EE eta EuE. HB izan zen bakarra hori kuestionatu zue-na, "ekintza irregularrak babesten zituela" kritikatu eta Batzar Aretotik atereaz.

**B**i berri ekonomiko esanguratsu izan dira egunotan. Brasileko Sao Pauloko Metrorako 30 bagoi egiteko lehian da CAF Suitzako ABB multinazionalarekin. 21.000 milioi pezetako operazioa da honakoa. "Indar" enpresak, berriz, ordainketa etetea aurkeztu du Tolosako epaitegian. Zuzendaritzak

"teknikotzat" jo du hori, enpresa aurre-ra ateratzeko biabilitate egitasmo bat. "Indar"ek 3.000 milioi pezetako zorra du, baina baita eskaera zerrenda iraunkor bat ere hurrengo hilabeteetarako.

**B**ukatzeko, Nekane Altuna korrespontsalak momentuz bere egin-kizuna bete ezin duenez, bere ordezkotza egingo lukeenari animoak ematen dizkiegu berehala gurekin harremanetan jarri dadin.

GOIERRITARRA

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



## Plazako obrak eta babes ofizialeko etxeak

Herriko plazak berriro ederra hartu behar du. Izan ere, bertako arbolak zain-tzarrak zirela medio, lurra altxaturik eta egoera txarrean zegoen. Bestalde, arbola adarrak hainbeste hazi zirelako, eliza aldeko ikusmira erabat janda zeukaten eta garai bateko itxura bera hartuko du plazak oraingo obrei esker. Lehen txandako obra guztiak, eta bigaren batzuk ere bai, oso aurreraturik daude eta luze gabe izango da inaugurazioa. Egin diren lanak hauek dira: zuhaitzak bota, ur-sarearen saneamendua, telefono nahiz argindarrarentzat tuberia sartu, frontoi zaharra konpondu, elizako zumiterioa berriro, eta plazan zorua bota eta Segoviako harlauza ipini. Era berean, hemen bertako espezieko bost arbola landutako dira: bi arte, haritz bat eta bi ezki. Obra hauek Euskal Gobernuaren subentzioei esker egin dira, Gipuzkoako Diputazioari Hirigintzako arduradun den Arbulu jaunaren laguntzari esker.

Babes ofizialeko 12 etxebizitzak hil honen amaierarako bukatuta egongo dira. Urbanizazio berriak Argarbi izango du izena, Zaldibiltik hurbil dagoen trikuharria gogoratuz. 12 etxebizitza hauek kooperatiban egin dira, Lurretze enpresaren gidaritzapean eta "Construcciones Aburuza"ren eskutik. Bi neurritakoak daude: handienek 86m<sup>2</sup> dituzte, eta 2 txikiek 75m<sup>2</sup>. Handien prezioa 9.751.000 pezeta da; eta txikiek 8.966.000 pezeta balio dute. Babes ofizialekoak direnez, prestamu bereziak izango dituzte eroslek, % 5 ingurutik hasi eta bakoitzaren diru-sarreraren arabera. Behar diren tramiteak bete ostean, uztail alderako bizitzera joateko moduan izango dira. Bestalde, 330 m<sup>2</sup> dituen lokala geratzen da Udaletxearentzat. Lokalari zer erabilpen eman estudiatzen oraintxe ari dira, eta puntu honetan esan behar da Diputazioak 10 miloi eman dituela lokal hori moldatu ahal izateko.

## Lehen Jaunartzeak

Hilaren 15ean, bost umek egiten zuten Lehenengo Jaunartzea. Eguraldi ederrarekin eta Don Emeterioren zuzendaritzapean

antolaturiko elizkizun ederragoarekin ospatu zuten egun handi hori bost haurtxoei eta bere familiei. Leku-Ederreko Oihana Nazabal; Bitorioetxeko Agurtzane Larrarte; Nañarri etxean bizi den Nerea Murua; Karlos Lopez, portugaldarra; eta Ibaiondoko Iban Erauskin dira bost horiek. Egia esan, oso talde txikia, garai batean hemen jaiotzen ziren ume sailak ikusita; aidanez, denek ere dozena erdia izan dute. Baina, asko edo gutxi, ilusio berberarekin ospatu zuten eguna eta gorde dezatela ilusio hori bizitza osoan.

## 93.ko Kultur-memoria

Kultura Batzordeak argitaratu berria duen 1993ko memoriaren aipamena egin nahi genuke ondorengo lerroetan. Ugari bezain bariatuak dira burutu dituen aktibitateak eta laburbiltzearekin konformatu beharko dugu: a) Gimnasian bi taldek funtzionatu dute urte osoan, Irene Irastorza zuzendaritzapean. b) Ikastaro arloan hiru aipatuko genituzke bereziki: eskulan ikastaroa, Ines Elorzaren ardurapean; gozokigintza, Beasaingo Iñaki Ibañez-en eskutik, eta txalaparta ikastaroa, Hernaniko "Txakun txa txakun" taldeak emanik. c) Bideo, diapositiba eta pelikula emanaldiak. Bideoari dagokionez, zenbait pelikula, Zaldibiko festak, bertsolari txapelketa, etab. eman dira. Horrez gain, iazko uztailaren pelikula batzuk eman ziren kanpo librean. Baina denetan interesgarrienak, dispositiba emanaldiak izan dira: mendiari, artzantza eta arraunari dedikatuak batipat; guztira zortzi emanaldi. d) Hitzaldiak. Batez ere, "Martxoaren 8a" eta kontsumoaren hobekuntzaren inguruan antolatuak. Batetik, emakumearen problematika aztertu zen lehen sail horretan; eta bigarrenean, berriaz, Eroskiren laguntzarekin, janariak kontserbatzeko era berriak eta kontsumoarekin erlazionaturiko beste zenbait gauza tratatu zen. e) Txirrindularitza astea. Martxoaren 24tik apirilaren 7ra antolatu zen. Oso interesgarria suertatu zen aste hau, ziklistez osaturiko mahai borobil eta herriko txirrindulari guztiak batu zituen afariarekin amaiera emanez. f) Dantzari eguna. Egun hau ekainaren 20an ospatu zen, egundoko jendetza eta herritar askoren laguntzarekin.

g) Pilota eguna. Ekainaren 12an izan genuen. Egun honetan Gipuzkoako pilota eskoletako haurrak bildu ziren Zaldibian. h) Uda 93. Urtero bezala, haur eta gazte-txontzat aktibitate mordo bat antolatu zen uda osoan zehar. i) Gazteentzat auzolanderiak. Depositutatik gorako estrata garbitzen aritu zen taldea sartzen da hemen. j) Sorotan Bele eta Lin Ton Taun-en kontzertua izan zen azaroaren 6an. Izagarritzko arrakasta izan zuen. k) Herri kirolen historia. Urriaren 18tik 31ra egon zen zabalik herri kirolei buruzko argazki erakusketa; oso interesgarria eta jendeak berebiziko harrera egin zion. l) Ezin ahaztu ezta Gabonen inguruan egin zen zenbait ekintza ere: 1) Santomasetarako autobusa, 2) Beasaingo abesbatzaren ekitaldia, 3) ahari taldea, 4) "Nor nori nork" antzerki taldearen saioa, 5) Quinteko metal Barrenaren ekitaldia, 6) Ordiziako Oroith taldearen saioa, 7) Haur parkea, 8) Eskularen erakusketa, 9) Gabonetako iharduerak umeentzat. m) Herri Urrats, Nafarroa Oinez ibiladietara joateko autobusak. n) Txirrindularitzari buruz eta Zaldibiaren gainean ateratako aldizkariak. o) Herriko armariari buruzko lanak. p) "Hirugarren mundura hurbilduz" programaren barnean El Salvadorreko Mozaran taldearen jaialdia. Uztailaren 23an izan zen jaialdi eder hau. s) Euskara-ikastaroetako diru laguntza.

## Iraola eta Eskisabel, finalista

Zaldibiko Pilota Eskola ari da bere fruituak ematen. Irurtzunen jokatu den txapelketa inportante batean, Gerizpe Iraola eta Haritz Eskisabel finalera iritsi dira, infantil kategorian. Altsasukoei finalaurrean 18 eta 9 irabazi ondoren. Maiatzaren 29an jokatu dute finala. Bestalde, kadeetan, Haritz Jauregi eta Aitzol Sukia finalaurrean iritsi ziren, nahiz eta finalerako pasea, juxtu-juxtu, galdu: 18 eta 16. Lesakarrak zituzten kontrarioak.

 **Rufino Iraola**



### GOIATGI

### OKINDEGIA

### Ogigintzan onenak!!

**Etxezarreta z/g**  
**ORDIZIA ☎ 160501**

**Barandiaran Taldea, 2**  
**ZALDIBIA ☎ 880737**

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.  
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

☎ 88 10 19    **ATAUN**    **S. Martin**



# Azentzioak bukatu, Korpus Jaia laister

Gizon Pikuaren ehorzketa-  
rekin amaitu ziren Azentzio  
Jaiak. Egon da zer egin eta zer  
ikusirik Legorretan. Ziur ez  
dituela ahaztuko Gizon Pikuak  
asteazken iluntzean gazteek  
abestu zizkieten bertsoak.  
Ostegunean, Izkilimili eta  
Karraxi kuadrilen artean jo-  
katutako herri-kirol apustuan,  
zaharrenak suertatu ziren ga-  
raile: gazteek ordaindu behar  
aurrez jokaturako afaria. Es-  
kualdeko 7. Irrintzi Lehiaketan Errekal-  
deko Isabel Amondarainek jaso zuen  
irrintzi hoberenaren saria. Ostiralean be-  
rriz, Dut eta Beti Mugan-en kontzertuak  
erakarri zuen inguruko herrietako gazte  
jendea. Larunbatean jokaturako herriko  
12. Paella Txapelketan Jose Lorentzo  
Soroizek eskuratu zuen 1. saria. Lagu-  
narteko herri bazkariaren ondoren XL.  
Legorreta Txirrindulari Proba: herriko  
Agustin Ulanga eta Iñigo Zugasti ezin  
hobeto aritu ziren. Play Back txapelke-



Arg.: J. L. Etxeberria

tan Inko Mujika izan genuen garaile.  
Mozorro gauean "tirolesez" zihazten  
Baldarrak eta Izkilimilikoak izan ziren  
1. saridunak. Igandeari dagokionez,  
arratsaldeko pelota partiduek eta haur  
danborradak hainbat jende bildu zuen.


Egunerokotasunera bueltatu bagara  
ere, ez da denbora luzerako izango.  
Hortxe baitugu ekainaren 4an ospatuko  
den Korpus jai eguna. Eta dagoeneko  
puntu-puntuan egongo dira larunbate-

ko usariozko meriendan plater  
garrantzitsua izango diren ka-  
rakolak. Butzatzeko, ikus egi-  
taraua Agendako egutegietan  
(6.orria).

## Pala Txapelketa

Hurrengo ihardunaldiari  
dagozkion partiduek hona-  
koak dira: 28 (larunbata),  
3,30etan: Koldo-Urreta, Es-  
naola-Leundaren aurka; Sabi-  
no-Iztueta, Bolita-Larrearen  
aurka; Moser- X. Agirre, Nibardo-Kar-  
losen aurka; Joseba-Valles, P. Ibañez-X.  
Gonzalezen aurka; I. Garmendia-M.  
Urretabizkaia, Bi Patxiren aurka. 29  
(igandea), 10,30etan: I. Oiarbide-J.  
Mujika, I. Oruezabal-I. Bidekietaren  
aurka; I. Bekarte-M. M. Kerejeta, Ene-  
ko-R. Aldasoren aurka; Oscar-Josean, J.  
Jose-Aldabaren aurka.

Xabier Glez. Ezama



## IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio-  
epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion  
Especialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du  
1994-1995 ikasturteari begira:

- \* Haur Hezkuntza
- \* Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- \* Hezkuntza Musikala

Informazioa:

IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



## Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.  
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

**BEASAIN**

## IBAI - ONDO



**ZURGINTZA  
HALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:  
Antzizar Auzoa, z/g.  
Tfnoa: 880543 **BEASAIN**



## Aitzkorri K. E., futbol giroan gazteen alde

**A**itzkorri K. E. Seguran kokatuta badago ere Goierri guztiko futbolariak jolasten dute bertan: Zegama, Segura, Idiazabal, Beasain, Zaldibia, Ordizia, Ormaiztegi eta Mutiloa. Bertan, 12 eta 16 urte arteko, infantil eta kadeteekin bakarrik lan egiten dute, ilusio osoz gainera. Herrian, jendea futbolaren inguruan ez dela mugitzen dioten hiru futbolzale sutsu dira elkarte hau aurrera daramatenak: Angel Gomez (lehendakaria), Joxe Gereño (direktiboa) eta Iñaki Albizu (entrenatzailea). Azken biekin, lasai meriendatuz, hitzaspertu bat egin dugu mutiko futbolarietaz eta futbol munduaz orokorrean.

Duela zortzi urte hasi ziren alebinekin hondartzan jolastuz. 4 urte geroago, hondartzako futbola jeitsi egin zen. "Diputazioak adin horretan eskolako kirola bultzatu du. Partehartzea bultzatzeko ondo dago baina kirol konkretu baterako jendea sakabanatu egin da, herri txikiak eskolatan ez bait dago talde bat osatzeko hainbat ume", dio Joxek. Hau dela eta, erabaki zuten federatu mailan taldea sortzea. Aldi berean herrian futbol-zelai berria egin zuten eta Segurako futbol taldea sortzear zegoen. Beraiekin eta Idiazabal K. E.-rekin harremanetan jarri ziren hiruen artean bat egiteko. "Ideia ona zen, bakoitzak bere aldetik ez dauka nahiko ume eta denok batera inguruko haur guziekin lan egin genezakeen, baina idiazabaldarrek ez zuten sartu nahi izan. Orduan erabaki zen guk bi talde aurrera ateratzea eta Segurak jubentia eta erregionalak. Honek gureak 16 urte betetzean Segurara pasatzen dira".

Adin horretakoekin lan egitea alde batetik zaila dela azaltzen dute, baina



Holandan etxera bidean Eurodisney-ko atean, beraiena ez da futbola bakarrik

bestetik atsegin handiak ematen dituzte. "Joxek, umeak bereak izango balira bezala ezagutzen ditu", azaldu digu Iñakik. Beraientzat politena talde batean giro ona egotea da, nahiz eta horretarako jende gutxiagorekin lan egin behar izan. Jokalariari baino gehiago pertsonari begiratzen diote; "futbol-zelaitik kanpo entrenatzailea beraietako bat izan behar da, beraiekin ibili, konektatu..."

### Urteko lanari saria

Futbolarietaz "sari" bezala, uda aldera kanpora joaten dira torneoak jolastera. Frantzia bi aldiz izan dira, Holandan behin eta aurrean Austria eta Frantziara joateko asmoa dute. "Hau umeentzat aliziente bat da, ingurukoek aurka jolastea rutina bihurtzen bait da. Gainera egun batzuk etxetik kanpo pasa, beraiekin ibili, hoteletan egon..., zerbait berria da mutikoentzat" dio Iñakik. Kanpoan egiten dituzten egunetan goizean futboleko jolasteaz gain arratsaldean inguruak ezagutzen ibiltzen dira.

Holandan, 500 talde artean finalerdietara iritsi ziren. Frantzia berriz 2 aldiz

bigarren geratu dira eta Oier Arzelus Ormaiztegiarrari jokalaria baliotsuena eta goleatzaile nagusiaren sariak eman zizkieten. "Kanpoan bai, baina hemen jokalaria bat gora igotzeko asko destakatu behar da. Errealak beti Donostialdeko jokalariei begiratzen die", kexu dira Aitzkorrikoak.

Joxe ez da berria lantegi honetan, duela 25 urte hasi eta 12 urte iraun zuen Segura talde ezagun harren bultzatzaile izan zen. Gipuzkoako txapeldun eta Espainia mailan hirugarren geratu ziren. Lorpen handiak Lazkao eta Ataungo jokalarietan oinarritzen zen talde harrenak. Han jolastu zuten Txiki Begiristainek, Eizmendik, Alaves eta Sansera joan ziren hainbat jokalariek. Majinabat oroitzapen ditu segurarrak baina hoiek beste kontu batzuk dira.

Ez dute elkarriketa bukatu nahi Aitor Labaka zaldibiarri lehen bait lehen sendatzeko esan gabe.

 Mikel Albizu



Hirigoien, 12  
LAZKAO

☎ 16 10 16

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia  
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g  
☎ 88 80 23

LAZKAO



Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfn: 88 94 82  
20200 BEASAIN



## Elortza ormaiztegiarra

Joxe Ramon Elortza Ormaiztegin jaio zen orain dela 30 urte. Bertsozaletasuna lagun artean, eta nola-bait parranda-giroan, sortu omen zitzaion. Hala, Goierriko Lanbide Eskolan zebilela, bertako irakasle eta, horrez gain, bertsolaria den Iñaki Muruak arreata jarri zion, Gabiriako bertsolari gazteen txapelketa baterako animatuz. Garai hartan 20 urte inguru izango zituen, bertsolaritza munduari gogoz ekin zionean, alegia.

Gerora, "Osinalde" Elkarteko txapelketa irabaziko zuen 88.ean. Lazkaon, 89-VII-19an, Lazkaoko Maizpide Euskaltegiak antolatutako ospatu zen urteko Goierriko bertsolarien jaialdia. Haseran, gai bat izan zuten bertsolari guztiek abesteko. Hau da Elortzak kantatu zuenetako bat. Gaia, "Euskararekiko izan duzun esperientzia"; doinua, "Andre Madalen":

Lehendabiziko sehaska hartan  
gurasoak erakutsi,  
gero eskolan erdara zela  
eta egin nion etsi,  
baina gerora nik borondatez  
hala eta guztiz eutsi,  
hori egiten duen mutilik  
ez dauka meritu gutxi.



Gaur egun, bertsolari nahiko ospetsua dugu Elortza goierritarra. Euskal Herriko azken bertsolari txapelketan ere parte hartu duelarik, Ordiziako Bertso Eskolan maisu lanetan hasia da. Honen aurretik Nikolas Zeberio bertsolari eta gai-jartzailea zebilen lan horretan murgildurik, baina honek ez zeukan denbora gehiegirik nonbait, eta hargatik ari da orain Joxe Ramon bere partez. Bertsotan erakusten zer moduz moldatzen den galdetzean zera dio: "Nola moldatzen naizen...? Hori Bertso-eskolan dabiltzanak esan dezatela...!". Gerora ere gustatuko litzaioke

bertan jarraitzea, baina ez daki. Orain horretarako astia badu; ezin duenean, berriz, beste norbaiten esku utzi beharko du.

Ordiziako Barrena Kultur Etxea dute topaleku bertsotan ikasten dabil-tzan gazteek nahiz J.R.-ek, asteazkene-roko ordubeteko saioa egiten dute bertan. "Astean ordubete ez da gehiegi, baina zer erremedio!, ikasketak eta dauzkaten beste lan batzuk kontutan harturik, jakina, denetarako nahi adina denbora ezin atera...", dio. Bertso-tan ikasteko nahikoa ote den? Bere us-tez, "Bertso eskolan akatsak zuzendu eta orientazio bat eman daiteke, eta behin hori lorturik lana bakoitzaren gain dago; zenbateko zaletasuna duen, etxean zenbat saiatzen den, e.a.".

Gipuzkoako bertsolari gaztetxo-en txapelketa jokatzan ari dela eta, goierrikoengatik galdetu diogu: "Nik, egia esan, bertso eskolako lana ez dut soilik txapelketari begira bideratu nahi. Nere helburua da gazteak bertsotan ikasiz ondo pasa dezatela. Hortik aurrera us-te dut txapelketan gauza politak egiteko gai direla". Zorte on, Joxe Ramon eta besteoi!

 Alaitz Sarasola



**MUJICA**  
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA

### URBITARTE Sagardotegia

-Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik as-teburuetan betiko sukaldaritzarekin



Enkarguak: 888331  
ERGOIENA AUZOA  
☎ 882719 ATAUN



Nahi duzun argazkia inprima-tuko dizugu zure kamixetan  
Domingo Unanue Plaza  
☎ 88 93 25 ORDIZIA



**LANCIA**  
ETXE - AZPI


☎ 88 10 61 - 88 29 46  
ORMAIZTEGI





Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**

**fundación kutxa**